

URDAIBAI

2022
zenb. 32
.....

©MAGAZINE



#etorkizuna

| BEHARGINTZA. ARRETA BUSTURIALDEA-
URDAIBAIKO LAN MERKATUAN

| IBARRANGELU, KONDAIRAZKO PAISAIA

| ALKARRIZKETA **UNAI REMENTERIA**
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

| URDAIBAI TORRETXEA, IRAGAN
NOBLEAREN AZTARNA

| ARTIEDA TAR IÑIGO, KORTSARIOEN, ITSAS
ARMADA ETA ITSASGIZONEN HISTORIAO

| OROLDIOA ETA LIKENAK, KUTSADURAREN
BIO ADIERAZLEAK

| KAPOIAK GABONETAN

| SAN NIKOLAS, SANTU BIHOTZ-ZABALA

BASKE PENSIO NES

BANAKAKO BGAE

Kutxabank SA Bazkide-sustatzailea.
Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

kutxabank

**EGIN PLAN BAT
ETA GOZATU
ZURE
ETORKIZUNAZ**



PUNTU ETA JARRAI

Urteko azken zenbakiak beti dauko agur esateko kutsua, itxaropenarena edota ziurbakotasunarena be. Lerro hauek idatzi doguz loteria egunean. Goizeko lehen ordua da eta zortea pertsona askoren bizitza aldatzeko itxaropena hor dago. Beraz, agian ez doguz lerro hauek amaituko... edo poztasun ezezagun batez idatziko doguz. Edozelan be, uste osoa dogu, oso eskertuta gagozela laguntzen daberen pertsona eta erakunde guztiei, 2015etik aurrera Urdaibai Magazine urtean lau zenbaki argitaratzen jarrai daiguzan. Zuon laguntza izaten jarraitzea izango da geure loteriarik onena. Era berean, oso eskertuta gagoz aldizkariagatik zoriontzen gaituzuen eta jarraitza animatzen gaituzuen irakurleen kopuru gero eta handiagoarengatik. Zuotariko askok zenbaki bakoitza bilatzen dozue bilduma egiten dozuelako. Guretzat pozgarria da. Geure orrietako edukiei dagokienez, eskerrak emon gura deusueguz geure alkarrizketei eta geure deiei erantzuten deusuezuen guztioi. Izan be, posible egiten dozue erreportajeak osatzea eta informazioa zabaltzea. Informazio hau egiazkoa, erabilgarria eta entretenigarria izan daiten lan egiten dogu eta geure nortasuna, eskualde, lurralde eta herrialde-nortasuna adierazten dau. Irakurleok dozue berba guri esateko ea, noizean behin behintzat, lortzen dogun. Eskerrik asko hor egoteagatik, Urdaibai Magazine paperean irakurtzen dozuenok, online irakurtzen dozuenok eta webgunetik zuon gailuetara deskargatzen dozuenok. Danoi, Zorionak eta Urte Barri On!

* Aldizkariaren bilduma egiten dozuenontzat eta zenbakiren bat falta dozuenontzat, zenbaki batzuk agortuta dagoz, baina zenbaki batzuetatik ale gutxi batzuk doguz. Orri honetan agertzen dan e-mailera idatz daikeguzue, zein falta jatsuezen esan, eta doguzenak jasotzean ordaintzeko edo geure bulegoetan jaso daikezue. Mesedez, eskatu urtarilaren 31 baino lehen. Formatu digitalean deskargatu daikezue aldizkari guztiak helbide honetan:

<https://urdaibaimagazine.eus/eu/hemeroteka/>

ARGITARATZAILEA
NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus


HARPIDETZA
Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus
URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU
Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015
Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2022.12.23



AURKIBIDEA



- 04** ERREPORTAJEA. Behargintza, Arreta Busturialdea - Urdaibako lan merkatuan
- 12** DANONARTEAN.
- 19** GABONETAKO OLERKIA Bitoriano Gandiaga
- 20** VISIT URDAIBAI. Ibarrangelu
- 22** ALKARRIZKETA. UNAI REMENTERIA. Bizkaiko Ahalzun nagusia
- 30** LEKUKO. Urdaibai Torretxea
- 32** KALERIK KALE. Artieda Tar Iñigo
- 34** SALTSA PORRU. Kapoiak
- 38** BERDEAN. Orolodioa eta likenak
- 40** BETI JAI. San Nikolas.

ARRETA

Busturialdea-Urdaibain lan merkatuan

Busturialdean enplegua sustatzeko bi udal zentro dagoz, Behargintzak. Gernika-Lumon, Lanbide Ekimenak izenekoa, eskualdeko beste 16 udalerriri zerbitzua emoten deutseena, eta Bermeon, Mundaka eta Sukarrietari zerbitzua emoten deutsena. Biek egiten dabe lan kalidadezko enpleguaren sorrera eta eskualdeko garapen ekonomikoa sustatzeko.

Behargintza sarea 2001-2002 urtean sortu zan, eskualdean enplegua sustatzeko, enpresa barriak sortzeko eta Busturialdearen garapena bultzatzeko. Bere zerbitzuak enpresen lehiakortasuna, aholkularitza eta prestakuntza hobetzera zuzenduta dagoz. Lanbide Ekimenak-Behargintza Gernikaldea zerbitzuaren hastapenak zertxobait desbardinak izan ziran. Urte batzuk lehenago sortu zan, 1989an, Gernika-Lumoko Udalaren ekimenez. Ule-apainketa, estetika eta arotzeriako Lanbide Heziketako Zentro lez sortu zan. Behargintza sarea sortzen danean, zentro hau integratu egiten da, eta, gainera, hitzarmen bat sinatu eban Busturialdeko hamasei udalerriekaz (Ajangiz, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Foru, Gautegiz Arteaga, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morgia, Murueta, Muxika eta Nabarniz), hauei zerbitzuak emoteko. Lanbide Ekimenak-Behargintza Gernikaldea eta Behargintza Bermeo erakundeen arteko desbardintasuna da Lanbide Ekimenak prestakuntzan dedikazio handia daukola, Gernikaldeko CIP-a (Ekimen Profesionalen Zentroa), besteak beste. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuagaz daukon harremanari dagokionez, "etenbako lanbidetza da, proiektu

komunetan gagozelako eta kalidadezko enplegua sortzeko helburuan bat egiten dogulako. Komunikazio arina dogu", azaltzen dabe Bermeoko Behargintzatik. Bestalde, Lanbide Ekimenak- Behargintza Gernikaldea horrela definitzen dau bere burua: "Lanbideren zentro laguntzaila, eta, horrela, dirulaguntzak jasotzen doguz enplegu-proiektuak bultzatzeko eta enpresei eskualdeko lanbakoak kontratatuzko laguntzak eskaintzeko. Era berean, enplegu-agentzia homologatua gara, eta horrek aukera emoten deusku enpresei lan-eskaintzak kudeatzeko".

Lan-merkatua aldakorra da, eta faktore sozial, ekonomiko eta demografikoek eragiten dabe. Langabeziak eta behin-behinekotasunak markatu dabez azken hamarkadak, eta 2015etik aurrera hasi zan suspertze motela, baina geure eskualdea ez da biztanleriaren zahartzetik eta jaiotza-tasa baxutik kanpo geratzen. "Eskualdeko argazkia erabat aldatu da; gaur egun, zerbitzuen sektorea da lan-merkatuaren eta enplegu-sorreraren euskarri nagusia, % 14,4 igo baita. Bestalde, industriaren sektorea atzeraka doa eta horrek enplegu kualifikaduaren sorrera oztopatzen dau", nabarmendu dabe Bermeotik.

>>>



Profil kualifikadua izatea da Busturialdea-Urdaibain hautemandako beharrianetako bat.

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa. Goi-mailako zikloa, Barrutialdea Inatitutua. (Arratzu)



ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA

ARRO
LAGUNE

IGANDE GUZTIETAN
TODOS LOS DOMINGOS
10:00-14:00
ARRATZU

Visit Urdaibai



Instalazioko eta altzari-hornikuntzarako teknikaria, Barrutialde institutua (Arratzu)

PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA ETA MERKATURA EGOKITUA

Behargintza zentroak lanean ari dira herriarrak, lan-merkatua eta eskualdea elkarregiaz joan daitezcan, eta Busturialdea-Urdaibain hautemandako beharriaz netako bat da profil kualifikadua izatea. Prestakuntza espezializatua enpresen eskaera bat da, eta batzuetan ez dabe aurkitzen ohiko bideen bidez behar daben profila. Enpresek eskatzen dabena eta lanbakoaren kualifikazioaren eta esperientziaren artean "desoreka" dago, eta errealidade hau Bizkaia osoan islatzen da, batez be industria-profiletan. Busturialdea-Urdaibai ez dago errealidade horretatik kanpo, eta lehen sektoreak garrantzi handia izan dauen arren, Busturialdeko Ekonomia Sustatzeko Plan Estrategikoaren arabera, orain sektore garran-

tzitsuenak egurraren eta arrain-elikagaien sektorea dira, eta sektore hauek profil kualifikaduak eskatzen dabez. Garapen ekonomikoko proiektuak ildo estrategiko honeekaz lerrotatuta dagoz. "Gaur egun, hainbat proiektu doguz martxan, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera finantzatuta, esaterako, Busturialdeko egurraren sektorearen garapena (sektorea sustatzeko ildo estrategikoak abian jartzea), Gernika-Lumoko industrialdeko asoziazionismoaren sustapena (industrialdea ordezkatuko dauen enpresa-alkarte bat sortzeko eta bultzatzeko lankidetzadynamikak), eta eskualdeko enpresa traktoreekaz barrikuntza proiektu ireki bat. Proiektu hori erronka eta beharrak mahai gainean jartzean eta horreei irtenbidea emoten saiatzean datza, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz", azaltzen dabe

Lanbide Ekimenak-Behargintza Gernikaldeatik.

Behargintza Bermeotik be alderdi hori azpimarratzen dabe. "Geure enpresek profil zientifikoak, zeharkako ezagutzak, proiektu barritzaileak garatzeko gaitasunak eta abar eskatzen dabez. Enpresen gaurkotasuna aldakorra da, eta administrazio publikoek bakoitzak bere ikuspegitik lagundu behar dogu, egokitzapen hau modu eraginkorrean egin daiten beharrezkoak diran baliabideak jartzeko". Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dabe familiatik eta hezkuntza-egituran sentsibilizatzea, eskaintza eta eskaria orekatzeko. Teknologia eta joera sektorial barriekaz lanpostu barriak eskatuko dira, eta lan-eskaera honi erantzuteko ezinbestekoa da prestakuntza egokia izatea. "Behargintza Gernikaldean Barrutialde bezalako prestakuntza-zentroekaz lankidetzan aritzen gara, enpresekaz lankidetzan prestakuntza espezializatua eskaintzeko. Dana dala ikastetxe-hiko lankidetzara areagotzea beharrezkoa dala uste dago. Familia-orientazioari dagokionez, sentsibilizazioagaz orientatu daikegu: Ekintzailetzarantz, eskualdeko enpresa sarea ezagutzearen garrantziari buruz, enpresek eskatzen dabezen profil barriari buruzko prestakuntza eta orientazioa (robotikan adituak, zibersegurtasuna, datu-analistak, marketin digitala, webgune-garatzaila, etab.).

Nekazaritzak eta baxurako arrantza-sektoreen pisu ekonomikoaren galeraren aurrean, eskualdearen erronka da, eta, beraz, Behargintzarena, beheranzko joera honi buelta emotea. Nahiz-ta biztanleriaren sektore bat gero eta kontzientziatua-ego egon tokikoaren balioagaz, KMO, eta geure eskualdeak eskain daikeenaz ekoiztearen, kontsumitzearen eta bizitzaren kontzeptuagaz, zaila da oreka aurkitzea

LANBIDE EKIMENAK - BEHARGINTZA GERNIKALDEA

- Azken urteetan, 2020 eta 2021, 53 enpresa barri
- Negozioaren biziraupen-indizea: % 80

BEHARGINTZA BERMEO

- Azken 5 urteetan, 131 enpresa barri
- Negozioaren biziraupen-indizea: % 78

landa-garapenaren eta egungo biztanleriaren premien artean. "Lehen sektorea dinamizatzeari dagokionez, Urremendigaz lankidetzan jarraitzen dogu, sektorea zuzenean ezagutzen dauen erakundea baita, eta sektore hau benetako eta kalidadezko enplegu-aukera lez ikus daiten saiatzan gara", adierazten dau Behargintza Bermeok.

Trebakuntza ezinbestekoa da enplegua bilatzeko, merkatuaren beharretara egokituta egon behar dauen prestakuntza. Eta ez bakarrik lanbakoentzat, baita behargineentzat be. Behargintzako bi zentroetan era askotako prestakuntza eskaintzen dabe: ekintzaileen beharretara egokitua, enpresa-kudeaketan zeharkako ezagutzak eskura daiezan; merkataritza txikiarentzako eta ostalaritzarentzako laguntzak, lehiakortasuna hobetzeko, "adibidez TicketBai-ren prestakuntzagaz, 2024an Bizkaian derrigorrezkoa izango dana", esan dabe Behargintza Bermeotik. Behargintza Gernika-Lanbide Ekimenak be arlo horretan lan egiten dau. "Prestakuntza hau autonomoei edo mikroenpresei zuzenduta dago, haien kudeaketa eta



Fabrikazio mekanikoko diseinua goi-mailako teknikaria, Barrutialde institutua (Arratzu)

enpresa-lehiakortasuna hobetu ahal izateko. Hainbat gairi buruzko ikastaroak edo tailerrak eskaini dira, esaterako Ticketbai, zibersegurtasuna, kudeaketa digitala, sare sozialak eta web presentzia, besteak beste. Prestakuntzari dagokionez, ez dago estrategia zehatzik, baina kontuan hartzen dira joera sektorialak edo lan-merkatuaren egungo eskariak".

AHOLKULARITZA

Lana bilatzera berez lana da, horregaitik, Behargintzen lan garrantzitsua aholkularitzan zentratzen da. "Gernikaldeak % 8,9ko langabezia-tasa dauko. Hemen lanbakoek lan-orientazioa jaso daikeez, lana aurkitzeko eta/edo enplegarritasuna hobetzeko hainbat ekintza egiten dira, esaterako, curriculum vitae eta aurkezpen-gutunak egitea eta/edo hobetzea, lana bilatzeko baliabide pertsonalak eta

pribatuak identifikatzea, lan-alkarriketata bati zelan aurre egin jakitea, ibilbide akademikoa eta profesionala aztertzea osotu ahal izateko, lan-munduaren eskaria ezagutzera, enplegu-agentzietan izena emotea, enplegu-atarietan izena emotea... 2021ean 513 orientazio-ekintza egin genduzan. Erabiltzaileen % 21ek kontratu motaren bat izan eben aldi horretan, pandemia gorabehera", azaldu dabe Gernikaldeatik. Behargintza Bermeon be lanbakoaren gaitasunak hobetzeko ahaleginak egiten dabez, orientazio- eta trebakuntza-programa espezifikoen bidez.

ENPRESEI LAGUNTZA

Behargintza zentroek harreman zuzena dauke eskualdeko enpresekaz eta enpresa sarearen ezagutza sakona dauke. Autonomoek, mikroenpresek eta

>>>





Eskualdearen eta beraz, Behargintzaren erronka da nekazaritzaren eta baxurako arrantza-sektorearen pisu ekonomikoaren beheranzko joerari buelta emotea.

Bermeoko portua

ETEek Behargintzaren laguntza teknikoak izaten dabe, eskualdeko erreferentziako agentea dalako. Inbersino barriarako aholkularitza, kontratazioa sustatzeko laguntzak, lehiakortasuna hobetzeko laguntzei buruzko informazioa, prestakuntza espezifiko eta Autonomoen Legea eguneratzea dira bertoko enpresei egindako ekarpenetako batzuk. Eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzen be lan egiten dabe, Bizkaia Orekan Sakonduz (BFA) bezalako programen bidez, proiektu sektorialak bultzatzeko, eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Patronatuagaz eta eskualdeko enpresa eragileekaz batera egin zan Eskualdeko Plan Estrategikoa

garatzera bideratuta dagoz. Plan horren ondorioz, U-Bai ekimena sortu da (ekintzaileak geure eskualdera erakartzeko eta Bilbora joan gura dabenak bertan eusteko), bai eta prestakuntza espezializatuko, talentua erakartzeko edo hezkuntzaren esparruan ekintzailearen kultura sustatzeko beste ekimen batzuk be.

Bi zentroak 2011tik ari dira alkarlanean Eusko Jaurlaritzak sustatzen dabezen Eskualdeko Enplegu Planetan. Urtea amaitu baino lehen, BOEn argitaratuko da Busturialdeko enpresak kontratatze laguntzen deialdi barria, 229.425 euroko aurrekontuagaz. *"Eskualdeko enplegu-planen bidez, Busturialdeko enpresentzako kon-*

tratazinorako laguntzak eta, administratzi-no publikoak eskualdeko lanbakoak aldi baterako kontratatze eskualdeko proiektuak, kudeatzen dira eta horrela, enplegua sortzen laguntzen da", azaltzen dabe Lanbide Ekimenak- Behargintza Gernikaldeatik.

Eskualdean enpresa asko jubilazinoagatik zarratzen ari dira, enpresa errentagarria izan arren. Behargintza Bermeon lan egiten dabe arazo horri irtenbidea emoteko eta belaunaldien arteko erreleboari eusteko, sentsibilizazio- eta aukera-programen bidez. Asmoa da negozio horreek erakargarriak izatea belaunaldi barrientzat, egungo negozio-eredu errentagarri lez ikus daiezan. Busturialdean, biztanleriaren zati handi bat 55 urtetik gorakoak dira. Egoera horren aurrean, *"Lanbide Ekimenak zilar-ekonomiagaz (Silver economy) lotutako proiektu bat lantzen ari da Espainiako estatuko beste hiru erakundeekaz eta REDEL Toki Garapeneko Erakundeen Sareagaz batera. Proiektuaren helburua geure adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko daben landa-guneen erronkak identifikatzea da".*

BUSTURIALDEKO ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

Lehiaketa honek eskualdeko gazteen ekintzaile-kontzientzia sentsibilizatzen laguntzen dau, eta eskualdean jarduera sortzen daben enpresa-proiektuak edo -ideiak bultzatzeko aukera emoten dau. 2014tik antolatzen da eta 18 eta 25 urte bitarteko gazteek har daikeez parte. Aurtun, 2022an, 10 proiektu aurkeztu dira. Irabazleek, Haziberriak (Lehen saria), Urdaibai Surf Center (bigarren saria), Etxetxu Tomatiek (lehen sektoreari lotutako ideia onena) eta Zeresku (Start Up bat sortzeko ideia teknologiko onena), sari ekonomikoaz gain, ikusgarritasun handiagoa lortzen dabe euren negozioak martxan jartzeko orduan. *"Busturialdean pertsona ekintzaileen harrobi handia dogu, geure ekintzaileta-zerbitzuak eta Bermeoko agentziakoak erabiltzen dabezen erabiltzaileen kopurua egiaztatu besterik ez dago. Beharrak eragindako ekintzaileta da, eta gehienbat autoenplegurako banakako proiektuak dira", nabarmendu dabe Gernika-Lumotik. **UM***



BAI, TXERTATZEN GARA



2022 GRIPEAREN ETA COVID-19AREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA

Urriaren 3tik aurrera

Arrisku-taldeko pertsonekin hasiko gara (65 urtetik gorakoak, haurdun daudenak, gaixotasun kronikoak dituztenak, etab.)





ARRATZUKO

UDALA

BARRIKUNTZA HERRIAREN ZERBITZURA

Espazio erosoak, beharrianetara egokituak eta erabilera bermeekaz izatea dira Arratzuko Udalak egiten daberen proiektuen helburuak, batez be herriko aisialdi guneak sortu, barriro diseinatu eta egokitzeko orduan. Asmo horreei barrikuntza, eraginkortasuna, kalidadea eta estetika gehitzen jakez. Horren adibide da Loiola auzoko plazan jarriko dauen pergola bioklimatikoaren proiektua. Pergola horrek xafla-sistema bat dauko, gunearen tenperatura modu naturalean erregulatzeko zabaldu eta zarratzen dana, eta sensorre-sistema bat, espazioa baldintza klimatologikoetara automatikoki egokitzeko aukera emoten dauena. Xaflen eta alboko estalgiekin diseinuari esker, euri-ura kanalizazio-sistema baten bidez jaso daiteke. Sistema horrek zutabeetatik hustea errazten dau, urak barruan txipriztindu barik. Bere osagarri guztiak (LED argiak, musika eta berogailuak) smartphone edo tablet baten bidez kontrola daitezke. Pergolaren argiztapena automatikoki programatu daiteke, eta bozgorailu integratuak daukozen audio-sistemak musika entzuteko aukera emoten dau, irratirako, USB-ko eta bluetootherako zuzeneko sarbideagaz. Pergolaren instalazioa eta mantentze-lanak errazak dira. Karpa barria Herriko Tabernari erantsiko jako eta terraza estaliaren funtzioa beteko dau, arratzuarrek eta bisitariek goza daiezan.



BUSTURIKO

UDALA

BIOINGENIARITZA, INGURUMENA LEHENGORATZEA BERMATZEKO

San Kristobal auzoaren inguruko uiol arriskuari irtenbidea emotea udalaren agendaren barruan dagoen proiektua da. Erakunde desbardineka hainbat gestino egin ondoren, Busturiko Udalak Itsasertz Mugarteko inplikazioa lortu dau proiektu batez. Proiektu hau aztertzen ari da udala, udal aurreikuspenak betetzen dabezela ziurtatzeko. "San Kristobal itsasadarra eta bere ingurunea lehengoratzeko" plan barrizalea da, eta bioingeniaritzako teknikak barne hartzen dauz, auzoko bizilagunek uiolak jasan ez daiezan, euri asko eta marea biziak dagozenez. Bioingeniaritza diziplina tekniko bat da. Horretan eraikuntza-material lez landare biziak erabiltzen dira, landareak soilik edo beste material inerte batzuek batera, esaterako harria edo egurra. Teknika eraginkorra eta jasangarria da, obren integrazino ekologikoa eta paisajistikoa hobetzen dauena. Esku hartzeko eremua Mape ibaiari dagokio, eta udalak hasten daberen proiektu guztietan bezala, ingurumena jasangarritasun-berme guztiekaz lehengoratzeko ezinbesteko baldintza da, Biosferaren Erreserba izatetik haratago. Auzo bakoitza hobetzea, azpiegiturak eta zerbitzuak emotea, bakoitzaren ezaugarriak eta nortasuna errespetatuz, funtsezkoa da Busturiko Udalaren estrategian. Izan be, herria modu orekatuan, bizi-kalidadeagaz eta bere auzoen arteko kohesinoagaz garatzeko helburu irmoagaz lanean ari da Udala.



FORUKO

UDALA

ASKATASUNA, BARDINTASUNA, ERRESPETUA

Foruko Udalak errespetuzko eta gizarte eta genero bardintasunaren jarrerak sustatzen dauz bere kudeaketan, eta indarkeria mota guztiak arbuiatzen dauz. Azaroaren 25ean ospatu zan "Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna" dala ta, Foruk agerian utzi dau genero-indarkeria kondenau eta gaitzetsi egiten dauela eta emakumeen babesareagotu behar dala. Udalak, modu publiko eta iraunkorrean jasota uzteko, mural bat sortzea agindu eban, herriko zeharbidean. Mural horrek argi eta garbi adierazten dau emakumeek eskubidea daukeela "ezet" esateko eta euren biziaren baldintza berberetan zuzentzeko. Zineforum bat be antolatu eban, "Desenfocada" filmea proiektatzeko, genero-indarkeria mota guztiak erakusten daberen filmea. Ekitaldiak adin guztietako herritarren parte-hartze zabala izan eban, eta horrek erakusten dau herritarrek gaiarekiko daukeen inplikazioa eta sentsibilizazioa. Bizkaiko Foru Aldundiko arloko teknikari adituek zuzendu eban filmari buruzko berbaldia eta debatea. Udalak adierazpen instituzional bat onartu eban osoko bilkuran. Adierazpen horretan, bere eskumenen esparruan, bardintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal-politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartu eban. Aldi berean, bat egiten dau "Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna" gaz, egiturazko indarkeria hau ezabatzeke borrokan eraginkorragoak izateko sortu dana.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

BERTOKO BIZTANLEEN BEGIRADA

Gauegiz Arteagako Udalak udal egutegia ilustratzeko urtero antolatzen dau argazki lehiaketak herriko erakusleho turistikoak aberastan dau, bertan bizi diranen begiradagaz. Udalak gai bat ezartzen dau urtero eta aurton, VIII. edizinoan, "Ezkutuko Altxorak" izan da. Eta ez dago herriko edertasuna agerian jartzeko eta herriko altxorren testigantza uzteko herritarrek bezalakorik. 120 argazki baino gehiago aurkeztu dira lehiaketara, gazteen eta nagusiek egindako argazkiak. Kalidade eta edertasun handiko argazkiak dira, eta horretatik 29 aukeratu dira 2023ko egutegia ilustratzeko. Ohi bezala, herriko etxe guztietan banatu da, doan. Argazki hauek eta aurton aurrehautatutako beste hainbeste, aurreko urteetan egin dan bezala, www.turismogauegizarteaga.eus web gune turistikoan argitaratuko dira. Udalarentzat, turismoa garapen jasangarriaren aldeko udal apustu estrategikoa da, eta webgune turistikoak erakusleho zuzen eta ezin hobea da, herriko zerbitzuak, natura eta ondarea ezagutarazteko. Herritarrek urtero aurkezten dabezen irudien kalidadeak, xehetasunek eta erakargarritasunak eraginda, "Argazkiak" atala sortu zan, 2018tik lehiaketetako argazkiak eta argazki historikoak batuz. Herritarren ekarpenei esker sortutako artxibo hunkigarria da. Bizilagunen bihotzagaz Gauegiz Arteaga ezagutzeko eta gozatzeko bizigarri dira guztiak.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

GERNIKAKO MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEAGATIKO AITORPENA

Idahoko (Estatu Batuak) Euskal Kulturarako Cenarrusa Fundazioak Jose Mari Gorroño Gernika-Lumoko alkatea saritu dau, "foru-herriaren oroimen historikoaren, gobernu onaren eta hazkunde politiko, kultural eta sozioekonomikoaren alde egindako lanagatik". Jose Mari Gorroñok ohore handizat jo dau saria, eta Gernika-Lumoko herri osora zabaldu gura izan dau aintzatespena. Epaimahaiak baloratu dau alkateak euskararen babesa eta sustapena, euskal kultura-adierazpena eta euskal nortasuna eta giza eskubideak babesteko egin dauen lana. Gorroñok Bakearen Hiria deiturikoa nazioartean are gehiago dimentsionatzea lortu dau, besteak beste, "Bakearen eta Adiskidetzaren aldeko Gernika Sariak" indartzuz; era berean, George Steer saria sortu dau mundu osoko kazetari ospetsuentzat, bakearen alde eta giza eskubideen alde egindako informazio-lanagatik; Gernika-Lumoren alde egindako lanagatik nabarmentzen diran pertsona eta kolektibo ospetsuen figurak eta ibilbidea airtortzen dabezen monumento garrantzitsuak bultzatu eta babestu dauz, besteak beste, Jose Antonio Agirre lehendakaria, Gudariak, José Labauria, bonbardaketa sasoiko alkatea, eta Nestor Basterrexearen "Su-agonia" lana, bonbardaketaren egunean, lehenengo bonba erori zan lekuan kokatutakoa. Jose Mari Gorroño, gainera, Gernikako Picasso Gernikara lekualdatzeko aldarrikapenaren bultzatzaileetako bat izan da.



IBARRANGELUKO

UDALA

ETORKIZUNEN ARDATZAK: FAMILIA ETA ENERGIA JASANGARRIAK

Gaur egungo egoera ekonomiko labanaka, txarrera egin dau energiaren prezioak (erregaiak, elektrizitatea...) igotzearen ondorioz eta Ibarrangeluko Udalak 8200 euroko aurrekontu-aldaketa egin behar izan dau herriko familiei laguntza ekonomikoa emateko. 100 euroko laguntzak dira, herrian erroldatutako (0-18 urte) ume eta gazteentzat. Oro har, eskola-materialerako, garraio-zerbitzurako, jantokirako edo material higieniko-sanitariorako laguntzak emongo dira. Laguntza eskatzeko, familiek ordainagiria edo faktura aurkeztu beharko dabe. Eskaerak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 31ra arte egongo da zabalik. Era berean, etorkizunean eta familien ongizatean begirada jarrita, Ibarrangeluko Udala Energia Plana egiteko prozesu parte-hartzaile batean murgilduta dago. Lehen bilera informatiboan, herriko bizilagunak batu ziran herriaren egoera energetikoaren barri jasotzeko. Familia bakarreko etxebizitzetarako zein etxebizitza kolektiboetarako izan eitekezan aplikazio energetikoak azaldu ziran, eta herriko Plan energetikoaren aurrerapenak erakutsi ziran. Herritarren parte-hartzea arrakastatsua izan zan eta udalak funtsezko bi konpromiso hartu ebazan: energiaren arloan auzo-proiektu interesgarrienei laguntzea eta udalerrian energia-komunitate bat sortzeko lehen pausuak emotea. Herriko Energia Plana egiteko, udalak Bizkaiko Foru Aldundiko 15.000 euroko dirulaguntza dauko.



KORTEZUBIKO

UDALA

JASANGARRITASUNAREKIKO ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Kortezubiko Udalak neurri estrategikoak hartu dauz herrian CO2 emisioak gutxitzen laguntzeko eta energia barriztagarrien aldeko apustua egiteko. Udalaren jasangarritasun-erispideek, bere kudeaketan eta tokiko energia-plangintzaren esparruan, OHZ (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) eta TMIZ (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga) aldatzeko proposamena ekarri dabe, eta honi azken Udalbatzan hasierako onarpena emon jako. Proposatutako neurriek hobariak dakartzate udal-tasetan, etxeetan eta herri-tarren ibilgailuetan sistema jasangarrien erabilera errazten dabe, bizilagunek CO2 emisioak murrizten laguntzeko eta energia-gastua murrizteko neurri gisa. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ) % 40ko hobaria ezarriko da propulzio-metodo hibridoa erabiltzen daben ibilgailuen kuotan. Hobari hau % 95ekoa izango da motordun ibilgailu elektrikoaren kasuan, eta zergaren kuotaren % 90eko beste hobari bat egongo da familia ugariarentzat. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (OHZ) dagokionez, ordenantzen aldaketak, besteak beste, % 50eko hobaria ezartzen dau eguzki-energiaren edo beste energia barriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu diran eraikineterako. Tasei dagokionez, 2023an Kortezubiko Udalak tasak izoztuta mantenduko dauz, familien ekonomiaren alde egiteko.



MENDATAKO

UDALA

TABERNA-BARRIRAKO PROIEKTUA

Mendatako Udalak zentro soziokultural bat proiektatuko dau Taberna-Barrin, udal-jabetzakoa, Elexalde indartzeko, Mendatako bizitzaren bultzatzaile eta dinamizatzaile lez. Proiektuak eraikina egokitzea aurreikusten dau, hiru gune bereizi eta alkarlotuak sortzeko. Erakusketa, ekintza eta ekitaldi sozial eta kulturaletarako gune nagusi bat izango da, eta eraikinaren solairu nagusia hartuko dau; beste espazio batek, barriz, bilera gune informala izango dau, ospakizunak eta jarduerak antolatzeko leku bat, ostalaritza-zerbitzuagaz; hirugarren gunea udal-biltegi eta eraikinaren gizarte-erabilari lotutako materiala eta altzariak gordetzeko lekua izango da. Proiektua Europar Batasuneko Leader dirulaguntzen programara aurkeztu da, landa-ingurunekeo jarduera ekonomikoaren dibersifikazioaren bidez landa-garapenekeo politikak bultzatzea helburu daukon programara. Martxan jartzeko, ebazpen positiboa behar da, eta horrek proiektua bideragarri egingo dauen dirulaguntza ekonomikoa lortzea dakar. Taberna-Barri eraikina Mendataren bihotzean dago, Elexalde auzunean, frontoiaren ondoan. Bertan dagoz San Migel eleiza, Idatze Etxea eraikina (udal taberna eta jatetxea eta kultur etxea) eta udaletxea, oinarri sendoa proiektu barri hau batzeko eta adin guztietako bizilagunentzako kalidadezko aisialdia sustatzeko, eskualdeko beste toki batzuetatik Mendatara joateko erakarriagoak izateko eta landa-turismo jasangarriaren alde egiteko.



MORGAKO

UDALA

UDALA GERTUAGO, JASANGARRIAGO

Morgako bizilagunek udal irisgarria eta klima-aldaketa geldiarazten lagunduko daben ezaugarri teknikoak daukozen udaletxea izatea da eraikinaren birgaitze integralaren proiektuaren oinarria. Udal instalazioen irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz batera, eraginkortasun energetiko handiagoa lortu gura da. Gaur egun, eraikinaren lehen solairuan eskaintzen da jendearentzako arreta, eta eskilaratatik baino ez da iristen bertara. Hauxe igongailua jarrita konponduko da, eta, gainera, herritarrentzako arreta eta udaletxeko bulegoak herritarrei hurbiltzeko, bi zerbitzuak beheko solairura eramango dira. Lehenengo pisuan udal artxiboa eta erabilera anitzeko aretoa egongo dira. Aurrezpen eta efizientzia energetikoko irizpideak jarraituz sortu da proiektua, fatxada aireztatuta eginez eta beheko solairuko zoru eta estalkia isolatuz, eraikinaren energia-eskaria murrizteko. Proiektua hiru fasetan banatuta dago eta aurrekontua, guztira, 611.445,94 eurokoa da. Lehenengo eta bigarren faseen lizitazioaren ondoren obrak urtarrilean hastea kalkulatu da. Fase hauetan beheko solairuko obrak egingo dira, udaletxea bertan jartzeko, eta fatxada, goiko solairua eta igongailua egingo dira, hurrenez hurren. Burutzeko epea sei hilabetekoa da. Obrak finantzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko dirulaguntza dauko Udalak, "Herriak Egiten" funtsarena, eta beste bat eskatu deutso Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari.



MURUETAKO

UDALA

BIRZIKLATZEA ETA JASANGARRIAK IZATEA, AURRERA DOAN KONPROMISO IRMOA

Murutako Udalak hondakinen gaikako bilketa osotuko dau hondakin organikoen edukiontzi marroia ezarriz. Guztira zazpi edukiontzi marroiak dira, udalerriko hainbat auzotan kokatuak: Aldai "Maistriene", Kamiñoko, Eleizondo, Murueta Aurtenetxe "Freskuene", Landa Erdi "Tomasene", Benta Solo "Lorategi" eta Olaburu Barri "Ibaigune". Horrela, Muruetako bizilagunek aukera dauke hondakin organikoak be bereizteko eta hondakin/zabor mota bakoitza dagokion edukiontzian uzteko. Helburua da ingurunea hobeto errespetatzea eta zuzenean laguntzea bertoko ingurumenaren kalidadean eta, zeharka, ingurumen globalaren kalidadean. Udalak zuzentzen dauen eta Muruetako biztanle bakoitza be implikatzen dauen hondakinen kudeaketan egindako aurrerapen hau, pausu garrantzitsua da herriko garapen jasangarrirako estrategian eta ingurumenaren aldetik arduratsua dan estrategian. Estrategia horretan lan egiten dau udalak. Edukiontzi barriak zabaltzeko giltzen bidez kudeatuko dira. Behar bezala erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da herritar guztientzat, euren lankidetzeta eta konpromisoa funtsezkoa dalako ahalik eta birziklatze-bolumen handiena lortzeko eta Murueta herri jasangarri bihurtzeko. Udalak zaborrak gaika biltzeko zerbitzua be eskaintzen dau (altzariak, txatarra, etxetresna elektrikoak...). Hondakin organikoetarako edukiontziak jartzeko inbersinoa 8.988€-koa da. Horri aurre egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 7.843€-ko dirulaguntza dauko Udalak.



SUKARRIETAKO

UDALA

GEURE TOPONIMIA, FUNTSEZKO HIZKUNTZA-ONDAREA

Sukarrietako Udalak herriko toponimiari buruzko liburu bat argitaratzeko lanetan ari da, herriko funtsezko informazioa gal ez daiten. "Sukarrieta, itsaso eta lehor/ Sukarrietako Toponimia" izenburupean, liburuak udalerriko historian zehar izan dauen bilakera ezagutzeko funtsezkoak diran tokien, iturrien, baserrien eta toponimoen izenak batzen eta zabaltzen dauz.

Azterlana eskritura publikoaren dokumentazioan, udal aktetan, artxibo historikoetan eta bizilagunek emondako testigantzan oinarritzen da. Azterlanaren iturri garrantzitsu bat Sukarrietako herritarren ezagutza da; horregatik, udalak liburuaren zirriborroa jarri dau herritar guztien eskura, udal webgunean, gura dauenak ekarpenak egin daiezan. Udalak garrantzitsutzat jotzen dau ekimen hau martxan jartzea herriko jatorrizko nomenklatura berreskuratzeko eta iraunarazotzeko, garai batean Sukarrietako paraje, eraikinak eta bertako auzoetako (Kanala, Abiña, Sanikole, Abaroa eta Munitiz) izenak, alegia, Izendapen toponimiko batzuek irauten dabe, beste batzuk ahanzturan erori dira edo barriak dira, eta beste hainbatek transmisioan deformazioak jasan dabez, idatzizkoak baino gehiago ahozkoak. Liburuaren egiteko, gaien aditua dan Labayru Fundazioa kontratatu da, eta Azti Fundazioaren laguntza ekonomikoa jaso da. Liburuaren argitalpenak hizkuntza-ondare baliotsua eskaintzen deutse Sukarrietako etorkizuneko belaunaldi eta publiko orokorrari.



URTE OSOAN BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS TODO EL AÑO



AURETIZKO ERRESERBA
RESERVA PREVIA

634 243 762
www.visiturdaibai.com

JASANGARRITASUNAGAZ BATI

Busturialdeko mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22

pre zero

BETI HIRITARREN ZERBITZURA
INGURUGIROA ZAINTZEN

Bekoibarra, n°31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 625 47 27

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es • 94 627 00 36

GOURMET URDAITEGIA

PEPI

Pepi Urdaitegiak kulturako herriartekak eta delicatasen produktua ugaritasunarekin duak.

Gernikako plaza 3
48300 Gernika-Lumo
600 00 14 28

SAN ISIDRO

Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazaritza Kooperatiba Elkarteak

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Solube
48300 Gernika-Lumo
Tel. 94 625 03 20 / Fax 94 625 68 75
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com

EUSKAL SOUVENIRS

GERNIKA

Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

@euskalsouvenirs

ARRIBALTZA KAFETEGIA

Barrenkalea, 6
946 466 084

ARRIZA KAFETEGIA

Artekalea
944 650 698

48300 Gernika-Lumo

LOGISTICA

GARRAIOA, BILTEGIRATZE, BANAKETA...

Txaporta Industrialdea, 2-1
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)

Tel. 94 625 03 65
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

Arrien Optika

Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es

*Aurten ere Gabon-
gauari begira,
gure esperantza jai-
girotzen ari da,
Gaboneko gaua
urtero berri da.*

*Jainko-Gizonaren
misterioa da,
salbazio ioko
graziazkoa da,
ez da oroipen huts,
bazko nara da.*

*Jaunaren bisita,
jaiotza graziaz,
berriz Emanuel,
ta, berriz Mesias,
etorrian dator,
hurbil da egiaz.*

*Pozari zabalik
berriz Gabonera,
Jainkoa eta gu
puntu berberera,
elkarrekin Gabon-
gaua ospatzera.*

BITORIANO GANDIAGA
Olerkari mendatarra. (1928-2001)



Edozein lekuren paisaia eta ezaugarriak deskribatzean, esan geinke bere hondartzak paradisiakoak dirala edota bere mendi magikoak, xarmaz beteta dagozela, eta paisaia ikusgarriaren, zelai idilikoen eta itsasertz-lerroaren gainean igota dagozela, Kantaurikoaren estampa eder eta bilatuenetako bat sortuz. Kontakizun horrek, beharbada, herrialde pribilegiatu eta aparteko batean edo paradisu irla batean pentsaraziko leuskigu. Baina herri baten erakargarritasunen zati baten erretratua da, Urdaibaiko leku oso berezi baten deskribapena.

Ibarrangeluk, Urdaibaiko estuarioaren barrualdetik abiatuta, bokalearen eskuinaldea marrazten dauen espazioa hartzen dau kostaldetik, iparraldetik itsaso zabalari aurre egiteko. Barrualdetik, artadi kantauriarrak jantzitako tontorrak dagoz. Altxor ekologiko eta estetiko da artadi kantauriarra, barneko zelai lasaien eta kostaldeko landarediaren berde eta okreen gogortasun biziaren aurrean. Ibarrangeluko geografiak eta kultura-ondareak eskaintzen dabezen aukeren aniztasuna eta maila apartekoak dira, eta bere baliabideen katalogoaren kalidadea, desiragarria da.

Herri honen ezaugarrietako bat bere hondartza ezagunak dira. Laidako hondartza Urdaibaiko aisialdirako hareatza handia da. Bere dimentsioak eta fisonomiak, maren eritimoagaz aldakorak, nahierako bainuen eta ibilaldien errepertorio parebakoa eskaintzen dabe. Kanalaren aldean ura lasaia eta aurreikusteko moduko da eta iparraldean, "olatuen" aldean, txonboak apartsu eta biziak dira; amaibako paseoak itsasbeheran eta ordu lasaiak eguzkitan itsasgoran.

Lagak, itsasoari begira dagoen hondartzak, esperientzia basatiagoa eskaintzen dau. Itsaso zabalari begira dagoen dunei esker, bere profil natural aldaezinari eusten deutson hareatza urrietako bat da. Bi hondartza handi honeen artean, karabi-

Ibarrangelu, kondairazko paisaia



San Andres eleiza, Ibarangelu

Andres eleizak, Bizkaiko artearen altxor handienetako bat gordetzen dau: XVI. mendeko egur polikromatuzko kupula monumentalak. Itzelezko neurriak daukoz, forma eta dekorazio apartekoak, egurregaz harlanduzko ganga bat imitatuz eta polikromia erabiliaz, manierista estiloko motibo enigmatikoz beteta, XVI. mendekoa. San Andreseko ganga, izaeradun herri baten jardueraren, kezken eta bilakaeraren bilduma berezia da.

Ibarrangeluk, gainera, atsedenerako, gastronomiarako eta aisialdirako aukera oso onak eskaintzen dauz: hondartzetan zein barnealdeko guneeetan tabernak eta jate-txeak dagoz. Baita be era guztietako publikoetara egokitutako ostatuak: hotelak, baserri-turismoak, landetxeak eta surf-eskolak bezalako jarduera-zentroak. Guztia kontakizun eder onenak merezi dabezen paisaia batean, legendazko paisaia natural, gizatiar eta historiko batean. **UM**



Laidako hondartza, Ibarangelu

nero kalatxoa dago. Antzorasen, itsasoren soinua eta usainak nagusi diran paradisu txikia.

Ibarrangeluko barnealdea artadian barrena sartzen diran bidezidor ikusgarrietatik zeharkatzea plan bikaina da, eta saririk onenak bertako bi begiratoki zoragarrietatik (Atxarreko San Pedro eta Akorda) ikus daitekezen panoramika harrigarriak dira.

Aberastasun natural bikain hau guztia, oso ingurune historiko eta sozial personalean kokatzen da, eta bere jatorria tradizio arrantzale eta baserritarran dago. Ibarrangelun, mendeetan zehar beste jarduera zahar baina garrantzitsuenen oroimenegaz elkartzen eta osatzen da tradizioa, hala nola Laidako ontziola zaharretako ontzigintza eta bertako biztanleriaren zati handi baten merkataritza-ontziteriari mendeetan eskainitako dedikazioa.

Komunidade honen balioen kontinente eta jagole aparta, Ibarrangeluko San



UNAI

Rementeria

Unai Rementeria Bizkaiko Ahal-dun Nagusiagaz berba egin dogu politikan egondako urteez, harro sentitzen dan proiektuez eta kargua uzten dauenean izango dauen etorkizunaz.

UNAI REMENTERIA

Bizkaiko Ahal-dun Nagusia

Zuk beti esan dozu politikak pertsonen bizitza hobetzen dauela. Alkate izan zinan urteetan, gero Lehendakartzako diputatua eta orain Ahal-dun Nagusia izanda, zure ustez, zelan lagundu dozu bizkaitarren bizitza hobetzen? Eta arlo pertsonalean, zer ekarri deustu politikak Unai Rementeriarri?

Zinegotzi lez sartu nintzan nire udalerrian 1999an, hirigintza, lizentziak, jarduerak, kaleak hobetzeko lanak, gas eta zuntz optikoaren konexinoak, garaje publikoak, industrialdea eta abar kudeatuz.

Politikan arituz, herri baten eta pertsonen bizitza hobetu daitekeela irakasteko eta ikasteko eskola izan zan.

Foru Aldundian, 10 urteko dedikazioaren ondoren, gauza bera pentsatzen jarraitzen dot. Dedikazio honek, proiektuak

gauzatuz, jendearen bizitza hobetzeko balio dau. Izan be, zerbitzu bakoitzaren (egoitzak, suteak itzaltzea, mendiak, hondakinak, errepideak, garraio-zerbitzuak) eta proiektu edo inbersino bakoitzaren atzean pertsonak dagoz. Programa eta euro publiko bakoitza pertsonen ongizatea hobetzeko inbertitzen da.

Arreta handia jarri dogu jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen, gehien behar daben pertsonen zaintzaren kalidadea hobetzen, eta benetako iraultza bati aurre egiten mugikortasun jasangarrian, garraio publiko gehiagogaz.

2019-2023ko Agintaldirako Planean "Bizkaia Egiten" da leloa. Covid-etik eta Ukrainako gerratik eratorritako krisiak gorabehera, Ahal-dun Nagusi lez planteatutako guztia egiteko denborarik emongo al deustu? Plan horretan, ze espazio hartzen dau Busturialdeak?

Hauteskundeetara berraro aurkeztu behar ote neban erabakia hartzerakoan, lehenengo erabaki pertsonala eta gero nire alderdiagaz batera, hori izan zan, hain zuzen be, galdera. Benetan eta zentzuz egin al da landu dodan programa? Bi krisi ekonomiko eta osasun-krisi bat jasan doguzen arren? Eta erantzuna argia izan zan eta da: Bai.

Halanda guzti be, Bizkaia hobea izateko, pertsonen ongizatea hobetzeko, proiektu eraldatzaile handiak martxan dagoz eta "kurutzaldi-abiadura". Beraz, beste pertsona batzuei pasatzen uzteko garaia da. Gauzatze horretan Busturialdeak be leku garrantzitsua dauko garapen mailari dagokionez. Eta ez bakarrik Aldundiak eskualdean emoten daben zerbitzu guztiekaz, baita jarduera ekonomikoan eta pertsonen zaintzan hobekuntzak bultzatzeko ekimen barriekaz be.

Nabarmendu gura dot U-BAlren lankidetzeta publiko eta pribatuaren ekimena, eskualdeko bederlatzi enpresa handiren arteko lankidetzarena, ekimen, programa eta baita enpresa barriak be sortzeko prest.

Mugikortasunean egindako hobekuntzak be azpimarratu behar dira. Autzaganeko tunelen lehen fase garrantzitsu baten ondoren, eta Bermeoko saihesbidea amaitu ondoren, orain hurrengo jarduera handiak ez dauko atzera bueltarik; 65 milioi euroko inbersinoa, Sollubek bere ibilbidea hobetu daian.

Ezin dogu ahaztu be Aldundia Busturialdera hurbildu izana. Eta hori bulego integral banagaz egin dogu, bai Gernika-Lumon, bai Bermeon. Hauetan foru-izapide gehienak egin daitezke.

Suhiltzaileen parke barria Arratzun. 6 milioi inbersino baino gehiago, eskualde honetan bakarrik, hainbat kirol-gune eta

udal-azpiegitura hobetzeko. Edo Guggenheim Gernika-Urdaibairen proiektu barria. Garatzen ari dan proiektu horretarako 80 milioi euroko partida erreserbatuta dago.

Bizi izandako pandemia, erregaien, elektrizidadearen eta elikagaien igoeragaz gora egin dauen inflazioa..., lehorreak eta tenperatura altuak eragindako alerta klimatikoak eta, ondorioz, mendien kudeaketa sute-arriskuen aurrean... ez da erraza izaten ari zure lana, bizkaitarren ordezkari nagusi lez. Zelan egiten jako aurre horrerri?

Egia da Bizkaiko pertsona guztiek ikusten dabela euren soldatek, errentek, aurrezkiek edo laguntzek gutxiagorako emoten dabela azken hilabeteetan jasaten ari garen inflazino handiagatik.

Egia da inflazioa murrizten ari dala, baina, era berean, hipotekak eta maileguak garestitu egiten dira interes tasen igoe- >>>

Politikak proiektuak gauzatuz, jendearen bizitza hobetzeko balio dau.





65 miloi euroko inbertsinoa, Sollubek bere ibilbidea hobetu daian, horreek ez dauko atzera bueltarik.

raren ondorioz. Bada, administrazioen jarduera modu koordinatu eta bateratuan egin da. Foru Aldundian, bazterkeria, prestakuntza eta enplegua hobetzeko programetan gastu handiagoa egiteaz gain, gure eskumeneko tresna be erabili dogu: fiskalitatea. Eta, hain zuzen be, bi urtean PFEZaren tarreak % 7,5 deflatatzeko erabagiagaz, bai eta kenkari guztietan eta 30.000 eurora arteko errentak jasotzen dabezen pertsonentzako 200 euroko kenkari gehigarri bat ezartzeagaz be, pertsona horreek inflazio horren guztia- ren % 25 neutralizatuta ikusten dabe. Hau da, zergadun horreek guztiek errentaren gaineko zergaren ordainketa murriztuta ikusten dabe inflazioak kostatzen jakenaren zati batean.

Konfiantza emoten deusun lantalde sendo bategaz egiten dozu aurre guztiari. Arazoak pertsonen konpontzen dabez, pertsona askoren artean. Pertsonen gaitasun konfiantza daukazula helaraztea, euretako bakoitza talde ugariago baina funtsezkoago baten parte dala esatea, proiektuak atera eta arazoak konpontzeko giltzetako bat dala uste dot.

Erronkek, arazok eta lurralde lez hobetzeko egin behar doguzen proiektuek gure gizartea hobetzeko balio dabe. Batzuek ordezkari daramagu hemen jarri gaituen hauteskundeengatik, baina konponbidea gutako bakoitzarengan dago.

Honako esaldi ospetsuan sinisten dot: "Ez da zer egiten dauen gizarteak, sistemak, administrazio honek edo erakunde honek nigitatik, baizik eta zer egiteko prest nagoen ni gizarte honen alde".

Legegintzaldia amaitzeko geratzen diran hilabeteetan, zeintzuk dira jorratuko dozuzen gai nagusiak?

Hasitako eta konprometituta dagozen proiektuak amaitzen ari gara. Batzuk lehenengo seihilekoan amaituko dira (hauteskundeak baino lehen) eta beste batzuk beranduago, proiektuek ezin diralako gelditu hauteskunde-etenaldiengatik. Hor dago Sollube hobetzeko proiektuagaz jarraitzea, mugitzeko bizikleta erabiltzeko proiektatutako bizipistekaz jarraitzea. Egoitza barriak bizikidetza-etxe lez, 20-25 plazako unidateekaz, bakoitzaren etxearen antzekoagoak. Gernika-Lumoko Ospitaleko hirugarren solairuan hogeta bost plaza soziosanitario ezartzeagaz, Ospitalean alta jasotzen dabenean etxera edo egoitzara itzultzeko behar bezain autonomoak ez diran pertsonak zaintzeko. Edo udalen kirol- eta kultura-guneetan hobekuntzak egitea, beti be udalek proiektuak aurkeztu eta aurrera eramaten badabe, guk % 80an diruz laguntzen doguzen proiektuak. Eta askoz be gehiago..

Agintaldian zehar, Bizkaiko lurraldea modu orekuan garatzeko ahalegina egin dozu. Esparru horretan, zelan ikusten dozuz Bizkaia osoa eta bertoko etorkizuneko erronkak?

Bizkaia beti izango dauz hobetzeko esparruak, beti hobetu behar da gehiago eta kohesinoari dagokionez be gehiago. Eta lurralde-orekan zentratu gura izan dogu, Eskualdeak ondo lotuta egotea, herri bakoitzean bizi ahal izatea eta beharrezko foru-zerbitzuak izatea. Horregaitik, urtero 125 milioi euro baino gehiago bideratzen doguz Bizkaibus zerbitzura. Horregaitik, urtero 50 milioi euro bideratzen doguz Metrora. Bizkaiko udalek 1.000 milioi euro baino gehiago jasotzen dabez finantzaketarako foru-funtsatik. Inoiz ez da hainbeste finantziarazina izan udalentsat historian. Horregaitik, 15 milioi euro bideratzen doguz ahalmen handiko banda zabala (Internet) lurraldeko txoko guztietara irits daiten. Edo bulego integral barrien bidez (Gertu) bere eskualdetik kanpora joan beharrik ez izatea Administrazioagaz beharrezko izapideak egiteko. Hau dala eta, egoitzen araua be aldatu genduan, pertsonen egoera arruntean bizi gura daben

bizilekua aukeratu ahal izateko. Edo *Orekan sakoduz* programa, Bizkaia osoko eskualdeen lehiakortasuna hobetzeko.

Programa eta zerbitzu askok laguntzen dabe lurralde-oreka beharrezko horretan, baina barriro dinot beti egongo dirala hobetzeko esparruak.

Eta Busturialdearen kasuan, zelan ikusten dozu etorkizuna?

Busturialdean aldaketa nabaritu dot azken urteotan. Bakoitzak bere lanean diharduela, euren ideiak eta kezak alkar trukatzera erabaki daben pertsonen konpromisoa igarri dot.

Guk Aldunditik mahaia jartzeko lana egin dogu, esaera erabilia, baina mahai hori okupatzeko eta euren ideiak eta proiektuak bertan jartzeko erabakia pertsona hauengandik sortu da. Beti esaten dot porrota dala interesgarriak izan daitekezen borondateak, asmoak eta proiektuak bateratzen ez saiatzea. Enpresa-ekimeneko eta ekintzaitzako U-BAI proiektua be errealitate horren ondorio da. Bermeo *Tuna World Capital* ekimenak eskualdean sinesten daben pertsonen eta ekimenen parte-hartzeari be erantzuten deus. Proiektuak izatea da lehenengo gauza. Horrerri gehitu behar jako gobernantza ona eta finantzaketa bilatzea. Benetan uste dot bide onean gagozela.

Ahaldun nagusi lez, Guggenheim Bilbao Museoaren 25 urteak ospatu dozuz. Hailanda be, ez deus denborarik emongo Guggenheim Urdaibain jaiotzen ikusteko. Zelan aurreikusten dozu proiektuaren garapena? Ze ekarpen egin daikeo Guggenheimek geure eskualdeari?

Lehenago azpimarratu dodanez, neurtzat porrot egitea proiektu bat garatzen ez saiatzea be bada, ikuspuntu desbardinatetik interesgarria dala ikusten danean. Guggenheim Museo Gernika-Lumon eta Muruetan zabaltzeko proiektua garatzen ari dan proiektua da. Ez dago eginda, egiteke dago.


Argi daukaguna da geure eskualdean horrelako proiektu batek izan beharko leukeezen oinarriko printzipioak eta ildoak. Gehitzen dauen eta ezer hautsiko ez dauen proiektua izan behar dau. Gehitu kulturaren, jardueraren, Gernika-Lumorako bizitzan..., hiribilduak daukon eta askoz gehiago izan daiken alderdi batean, alde

kulturala. Proiektu jasagarria izan behar dau; jarduera-eremu degradatuak berreskuratuko dauzela, baina marka eta enplegua sortuko dabeen beste jarduera bategaz berreskuratuzeko. Paduraren erdian ontziola bezalako jarduera bat Erreserba erabat errespetatuko dauen beste gune bategaz berreskuratuzeko proiektua. Bisita-kopurua mugatuta daukon proiektua, bai bisita daitekeen hilabetei dago kienez, bai bisita-kopuruari dagokionez. Eta mugikortasun jasagarria Gernika-Lumoko museoaren aldetik Muruetako museoaren gunera sartzeko modu bakarra izatea. Premisa horreetatik abiatuta, proiektua garatu egin behar da. Eta horretan ari gara.

Badakigu, era berean, Bilbon ezagutzen dogun hiri-museoa ez dala Erreserban

Guggenheim handitzeko proiektuak, jasagarria izan behar dau, jarduera-eremu degradatuak berreskuratuzeko, marka eta enplegua sortuko daben beste jarduera bategaz.

kokatzean bilatzen dana. Esperientzia bat eskaini gura da, esperimintatzeko denbora beharko dauen kultura eta naturaren arteko konbinazina. Eta hilabeteetan eta pertsona-kopuruan mugatzeak espazio hau oso interesgarria izatea bermatzen dabe, baina ez oso jendetsua.



Zeure lehen legealdiaren hasieran, diputatu nagusi lez, iragarri zenduan bi agintaldi baino ez zenduzala egingo karguan. Zergaitik?

Konbentzimentuz. Egoera normalizatu batean eta udal-politikaren esparruan izandako esperientziagaz, iristeko, proiektuak egiteko eta abian jartzeko behar zan denbora zortzi urte zirala uste neban. Garai hartan be ez genekien mundua hiru hilabetez guztiz geldiaraziko zanik eta beste 2 urtez be geroago, krisi sanitario eta ekonomiko bategaz.

Kargua uztean, garagarrilan, ze izango da egingo dozun lehen gauza?

Oso ondo gogoratzen dot 2015eko garagarrilaren 1ean, Gernika-Lumon, Batzar Nagusien aurrean esan nebala, Unai nintzela Mundakan etxetik irten nintzenean eta Unai bera izango nintzela bueltatzeko. Garagarrilan, ahaldun nagusi izateari uztean, Unai izaten jarraituko dot.

Ohikoa da Busturialdean mendi-ibiliak egiten zu ikustea. Ibitaldi on baten ondoren hartzen al dira erabakirik onenak?

Zalantza barik ibiltzeak, forma fisiko bat mantentzen laguntzen dau, baina baita zure buruan eta ideietan oreka izaten be. Niri ibitaldi luzeek pentsarazten, hausnartzen eta aurretiko ideien bat zuzentzen laguntzen deuste.

Nire ustez, ideiarik onenak ez dira sortzen zeure buruagaz berba egitean; askoren arteko alkarrizketa batetik sortzen dira, gai berari buruzko ikuspuntu desbarden arteko alkarrizketa batetik.

Familia kontziliazioaren defendatzailerak sutsua zara. Ba al dago hau lortzeko formularik? Zelan bizi izan dozue zuk eta zure familiak Bizkaiko Ahaldun Nagusi aldia?

Kontziliaziorako formulak? Beti egin daiteke gehiago, zalantza barik.

Nire familiak bere erara bizi izan dau esperientzia hau. Lehen egunetik, neure emazteak uste izan dau lan hau publikoa dala, baina nire aldetik profesionala, berak bere lan profesionala daukon bezala. Eta ez zala nire lanaren parte izango, nik berean egiten ez dodan bezala.

rraldearen alderdi sozioekonomikoa, behar diran eraldaketak, Ogasunaren funtzionamendua eta zergak.

Gaitasun handia dauko. Oso oso ondo egingo dau, duda barik.

Ze gustatuko litzakizu pentsatzea Unai Rementeriren jarraitzaileek urteen poderioz?

Egia esan, lotsa emoten deust horrelako galderei erantzuteak. Ez dau axola norberak zer gura dauen edo zer pentsatzen dauen norberari buruz eremu publikoan. Jendeak zer pentsatzen, ulertzen eta hautematen dauen da garrantzitsua, norberak bere esku izandako guztia lurraldearen eta pertsonen zerbitzura jarri dauen poztasun pertsonalagaz. **UM**

Idearik onenak ez dira sortzen zeure buruagaz berba egitean; askoren arteko alkarrizketa batetik sortzen dira.

Politikaren lehen lerrotik zoazela esan dozu. Ze lerroan kokatuko zara? Non ikusten dozu zeure burua?

Ez dakit, eta orain ez nago gai horretan zentratuta. Ezin dot.

Zure lantaldean Elixabete Etxanobe dozu, hurrengo eta Bizkaiko Diputatu Nagusia izan daitekeen lehen emakumea. Ze esan daikeguzu berari buruz?

Elixabete foru taldera etorri zan 2020an, agindutako funtzioarentzat interesgarritzat jotzen neban profila betetzen ebalako. Administrazioaren eremua oso ondo ezagutzen eban, batez be lurraldeko udalerriena, baita funtzio publikoa eta kontu publikoak be.

Baina bi urte eskasetan erakutsi dau esparru hauek menperatzeaz gain beste batzuk ezagutzen jakin dauela: gure lu-



% 100 URA GARA


Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciod eaguas.eus



Onetan,
onena.
De lo bueno,
lo mejor.



Ez da nahikoa itsaso eskuzabal bat edukitzea, gure abereak gurtzea, ezta lur emankor bat izatea ere. Zerbait gehiago behar da. Horregatik, Euskadin kalitate goreneko 18 produktuek jatorri, zapora eta benekotasun zigilua dute.

No basta con un mar generoso, con rendir culto a nuestro ganado ni con tener un clima fértil para el cultivo. Hace falta algo más. Por eso, en Euskadi los 18 productos de calidad superior tienen un sello de origen, sabor y autenticidad.

Urdaibai Torretxea

IRAGAN NOBLEAREN AZTARNAK

Foruko Armotxerri auzoko haitz baten tontorrean, Urdaibai Torretxearen aztarnak, "Perexil Gaztelua" bezala ezagunagoa, haitzera igota eusten dabe. Iturriza ikertzailearen arabera, Ajangizeko Lope Ansotek sortu eban Urdaibaiko Torretxea 844. urtean.

Hondamen-egoeran egon arren, garai batean itxura ederra izan ebala imajinatzea erraza da. Kalidade handiko kareharrizko eraikina da, ez dauko oinarririk eta harkaitzaren gainean bertan eraikita dago. Bere hormak metro bateko lodierakoak ziran gutxi gorabehera, eta torreak 12-13 metroko altuera izango ebala kalkulatu da. Hainbat bersino dagoz Urdaibai Torretxearen jatorriari buruz. Juan Ramón de Iturriza (1741-1812) ikerlariaren arabera, Ajangizko Lope Ansotek sortu eban torretxea 844an, eta XI. mendean Iñigo López jaunak Donemiliaga Kukulako monasterioari dohaintzan emondako eraikinen dokumentazioan barriro agertzen da. Bere jatorriaren beste bersino baten arabera, jatorrizko torrea XV. mendearen amaieran eraiki eban Hurtado García de Avendañoren ondorengo batek. Jatorriz Arabako lautadakoa zan familia eta, XIII. mendetik aurrera, Bizkaian finkatze-

28 URDAIBAI MAGAZINE



Urdaibai Torretxea, gaur egun.



Urdaibai Torretxea antxina. Argazkia: Foruko Udala

prozesua hasi eban. Torretxea hainbat maiztertzia-kontratutan aipatzen da XVII. mendean, eta 1641eko sutegien erroldetako zerrendetan be dokumentatuta dago, Foruko sutegien zerrendaren buruan.

URDAIBAI LEINUA

Torretxea Urdaibai izendau ebeen (Basurde edo urdeen ibaia), okupatzen eban kokapenari erreferentzia eginez. Izena torrea altzatu zan inguruaren deskribapena da, Urde (basurde) eta ibai berbaren toponimoa. Aurrerago, Torretxearen izenak jabeen leinuaren izena ekarri eban. Erreferentzia bibliografikoen arabera XVI. mendean Urdaybaytarrak Butroitarrei elkartu ziran, torrearen anderearen bitartez, Urdaybayko Maria Alonso anderea, Juan de Butron y Manriquegaz ezkondu zanean. Urteen poderioz, jabetza Adan de Yarza familiaren esku geratu zan.

Halanda be, Torretxe hau "Perrexil Gaztelua" izenez ezagutzen da eskualdean, Peristegitik etor daitekeen goitizena, gaztelutik gertu dagoen Foruko eremu baten izena. Aurreko garai batean, XIX. mende-

Urdaibai izendatu ebeen, (basurde edo urdeen ibaia), okupatzen eban kokapenari erreferentzia eginez.

ra arte, Gorritizko torretxea be deitu izan jakon. Dorretxetik gertu Gorritiz baserria eta errota egoan, 1641. urtean dokumentatua. Halanda be, 1704. urtean Gorritizko Torretxea agertu zan inskribatuta, eta zailantza dago denboragaz baserria leinu familia baten izena hartu ote eban, edo jatorrizko Urdaibai Torretxearen erreferentzia dan.

BERE ARKITEKTURA

Lau angeluko oinplanoko eraikina da, hiru solairutan eta sotoan banatutako barne-egitura dauko, eskailera bategaz komunikatzen ziranak. Torretxeak mendealdeko fatxadan eukan sarrerako atea, eta solairuen banaketari dagokionez, bigarrena zan nobleena baeon, hau da, ate eta leihoetarako espazioen, kalidadea eta neurriengatik. Sotoa eta goiko solairua biltegi lez erabiliko ziran, eta atxikitako pabiloiak, iparraldeko eta hegoaldeko fatxadan, korta eta lastategietarako ziran. Barrutik egitura osoa egurrezkoa zan eta armazoiak egurrezko habeen gainean eusten zan. Eraikinaren berezitasunetako bat zan bere hormetako baeon edegiune irregularra. Adibidez, hegoaldeko fatxadan, lehen solairuan gezileiho bakarria egoan; bigarrenean, leiho handiago bat; eta hirugarren solairuan, hainbat gezileiho. Mendealdeko fatxadan dago baeon erregulartasun gehiena, gezileiho eta ateburuko baeokaz. Iparraldeko fatxadan, haizeak eta euriak gehien zigortutako aldean, leiho bakarria dago, baina, agian, eraikin osoko nabarmenena, ojiba-leiho estilizatu bat. **UM**

URDAIBAI MAGAZINE 29



Artieda Tar

IÑIGO

*kortsarioen, itsas armada
eta itsasgizonen historia*

Nork esango leuke gaur Bermeoko kale batetik paseatzeak abenturazko benetako eleberri batera eramango gaituela, piratak, kapitaiak, abordaiak eta flotak barne, lurraldeak, interesak eta merkantziak defendatzeko edozertarako prest.

Bilakaera honek Artieda tar Iñigo marinela, merkataria eta kortsario lekeitiarraren bizitza laburbiltzen dau, Bizkaiko Itsas Armadako kapitain jeneral izatera iritsi zana. Bermeon, bere izenagaz dagoen kale batek bere balentriak gogorarazten dau..

Artieda tar Iñigo XV. mendean erdialdean jaio zan, Lekeitioko merkataria aberatsen familia batean: *Arteytatarrak* (*). Bere aita be, Ibañez Artieda tar NiKolas, itsasgizona, armadorea eta merkataria izan zan. Bere anaia, Artieda tar Juan Nikolas, Lekeitioko alkate izatera iritsi zan, eta beste anaia, Artieda tar Francisco, Durangoko Tabira hiribilduko nagusia (Erdi Aroan komunitate baten buru edo gobernatzaile zan pertsona) gisa botere handia eukan. Artieda tar Iñigo Arriaga tar Marinagaz ezkondu zan eta seme bat izan eban, Artieda tar Juan Nikolas.

Gaztetatik nabarmendu zan Artieda tar Iñigo bere buruargitasun eta kemenagatik, eta laster abiatu zan itsasoan eginkizun militarrek betetzera. 1476an, Gineako urrea eta esklaboak zeramatzen ontzi portugaldarren aurka borrokatzeko flota militar bat prestatu eban. Historiaren bilakaerarako jarduera erabakigarria izan zan, "Alcaçovasko Ituna" sinatu zalako honen ondorioz (1479). Itun horrek amaiera emon eutson Gaztelako tronurako ondorengotza-gerrari, eta horren bidez Portugalak eta Gaztelak Atlantikoko lurraldeak banatu ebezan.

Armadore lez, bere ontziek flota militar moduan jardun eban Portugalgo gerrarako edo Mediterraneoan, Iberiar Penintsularen, Balear uharteren eta Italia eta Siziliaren arteko merkataritza-lanetarako. Mediterraneoan bidaia hauetan, Artieda tar Iñigok bere kortsario baimena erabili eban (itsasontzien jabeei itsasontziak eta etsaien herriak erasotzeko emondako baimena), ontziak harrapatzeko.

Garai hartan, erregeek pribilegioak emoten eutseezan gero eta ontzi handiagoak eraikitzen ebezen armadoreei. Eta, 1491n, Laidan eraiki eban karraka-ontzi* bat eraikitzeko baimena emon ondoren (itsasbidaia luzeetako zama handien garraioan espezializatutako bela biribileko ontzia), Errege Katolikoek Artieda tar Iñigoren jarri eban konfiantza Bizkaiko Armada izan zana sortzeko.

BERMEO, ARTIEDA ETA ARMADA, SINBIOSI HISTORIKOA

Amerikaren aurkikuntzaren ondoren, Espainiaren eta Portugalen arteko lehia handiagoa izan zan. Eta balizko erasoen aurreko prebentzio-neurri lez, Errege Katolikoek itsas armada bat antolatzeko agindu eban, Bizkaiko Armada izenekoa.

Artieda tar Iñigo izendatu eban Errege Katolikoek Armada honetako Kapitain Jeneral, eta Bizkaiko Armada hau Bermeon batu zan; horregaitik dago estuki lotuta herri hau halako balentriaren protagonistari.

Erdi Aroan, Bermeo arrantza- eta merkataritza-gune ospetsua zan. Bizkaiko Armada 1493ko uztailearen 22an abiatu zan Bermeotik Cadizera. Ontziteria Artieda tar Iñigoren karrakaz, ontzi handiago batez, bi itsasontzi ertainez eta ontzi txiki batez osatuta egoan. Horreei karabela txiki bat gehitu behar jake (Portugalen eta Espainian XV. eta XVI. mendeen arteko bidaia ozeanikoetan erabilitako bela arineko ontzi bat), Artieda tar Iñigok emana, lotura eta esplorazio lanetan karrakaren laguntzarako, 50 upeleko edukieragaz.

Karraka itsasontzi handi bat zan, 1.000 upeletan tasatuta egoan (upela zan bizkaitarren artean neurri orokorra, eta 10 upeleko baliokidetzat 12 tonakoa zan), 100 artilleria-pieza baino gehiago eta 300 gizonen tripulazioa ebazan, 100 marinela ziran eta 200 arma-gizonak, gehienak lekeitiarrak.

Bere eginkizuna Cristobal Colonen ontzietan eskolta emotea izango zan, Cadizetik irten eta ozeanoan ondo sartuta egon arte, portugaldarren erasoetatik babesteko eta aurkitutako lurretara joateko prest egon eitezan. Halanda be, 1493ko abuztuan, erregeek Kolonen bidez portugaldar ontziak itsasoratuko ez zirala jakitean, Bizkaiko Armadari beste zeregin batzuk esleitu jakozan, lehena Boabdil erregea, Granadako Muhammad XI.a, eta bere gortea Adratik Afrikako kostaldera eramatea. Itzuli zanean, 1493ko abenduaren 29ko Errege Gutun batek Artieda tar Iñigo Bizkaiko Armadako kapitain nagusiari agintzen eutson «Tenerife konkistatzeko» espedizio-armadaren garraioa antolatzeari.

Tordesillasko Ituna sinatuz Espainia eta Portugalen artean Mundua banatu ondoren, errege-erreginek Bizkaiko Armada lizentziatzea erabaki eban, bere zerbitzuak beharrezkoak ez ziralako. Halanda be, Armada kontratu eban Sizilian eta Napolin turkiarren erasoetatik babesteko. Artieda tar Iñigoren espedizio barria, Garcerán Requesensen agindupean Siziliako Armadagaz bat eginez amaitu zan, honek "Gaetako blokeoa" burutu ebalarik, bere etsaiek itsasoz elikagaririk jaso ez eien.

Errege Katolikoek Artieda tar Iñigoren jarri eban konfiantza Bizkaiko Armada izan zana sortzeko.



Artieda Tar Iñigo kalea, Bermeo

Zerbitzu hauengatik, Koroak Artieda tar Iñigori «lau lantza mareatzailerentzako errege mesedea» emon eutson. Horrelako pribilegioak erregeentzat lan onuragarria egin eban pertsonak jasotzen ebezan. Mesede horren onuradunak lantza edo baleztari kopuru jakin bat ordaintzen eban beragaz, eta haiek arduratzen ziran bere alde borrokatzeaz erregeak gerrarako deia egiten eban. Bizkaian emoten ziran lantza eta baleztari guztiak itsasgizonak ziran (marinelak), eta haien betebeharrak Armadari zerbitzatzea zan.

Artieda tar Iñigo kapitain eta kortsarioari buruz dakiguna da 1503an Lekeitioko monja domingotarrekaz 8.600 marabedi lagatzea kontratatu ebala, 6000 kapitaintza baterako (egunero meza bat egingo zan bere arimaren alde) eta beste 2.600 erlijio-komunitateak kapera bat eraiki eian bera eta bere ondorengoak bertan lurperatzeko. 1510. urtearen inguruan hil zan eta kapera horretan lurperatu eban.

UM

**Artieda/Artieta: bi adierak historia-liburuetan agertzen dira.*

Kapoiak

gabonetan

Gabonetan tradizioa mahaian zerbitzatzen da. Gabon gauean geure muenetan orio-aza goxoagaz batera, bisigu desiratua, lebatza edo makailoa saltsan egon dira betidanik, eta Gabonetan kapoia, garai batean oparotasunaren hegaztitzat hartzen zana.

Gabon-gauean kapoien presentzia ez zan emon harik eta Gabonetako bigilia derrigorrezkoa izateari utzi eutson arte.

Olentzeroren kantak horrela dino: "Kapoiak ere baitu arrautzatzuekin... bihar meriendatzeko botila ardoakin", baina ze dakigu kapoiaz, Santo Tomasen merkatuetan ohikoa dan produktuaz? Zergaitik jaten da Gabonetan?

Kapoia oilasko arra da, bi hilabetegaz kapau edo zikiratua, gizendu eta mamina gal ez daian. Erromatarrek izan ziran zerealak urri ziran garaian eta hegaztiak gizentzeko gari-gastua mugatzeko legeak promulgau ziran garaian, oilaskoak zikirtzean kapoien loditzea azkartu egiten zala konturatu ziranak. Mende batzuk geroago, aurkikuntza hau bedeinkazinoa izan zan familia askorentzat, batez be nekazal munduan. Kapoia mimoz hazten eben, gaztetan kapau egiten zanetik, 1,5 kiloko pisuagaz, eta sei hilabeteren buruan 3 edo 4 kilora iristen zan arte, pisu ezin hobe mahaian jartzeko eta Gabonetan dastatzeko.

Gure baserrietan, Gabonetan kapoia hazi eta jateko ohitura oso lotuta dago maizterrek lurra landu eta baserrian bizitzeagatik urtero egin behar eben ordainketagaz. Gabonak hurbiltzean, tradizioa baino, kapoi gizenduak errentadoreei ordaintzea bi aldeek hitzartutako betebeharra zan, normalean notario aurrean eskrituratu. Gabonetako menuari ospea eta balio



Ilustrazioa: Amelia Urien

gastronomikoa emoten eutson hegazti hau oparotasunaren hegaztia bihurtu zan, errentadoreak euren mahaian jartzen ebeelako.

Gabon-gaueko afarietan kapoien presentzia ez zan emon harik eta Gabonetako bigilia derrigorrezkoa izateari utzi eutson arte, 1966an, Paulo VI.a Aita Santuaren Konstituzino Apostolikoak baraua tokiko egoera ekonomikorako egokia izatea eta katoliko guztiek beren borondatez laguntzea eta abstenitzea gomendatu eban arte. Lehenago, Eleiza Katolikoak ebatzi eban Natibitate-egunaren aurreko egunean (Gabon-egunean) baraua eta abstenentzia egitea derrigorrezkoa zala. Okela debekatuta egoan egun osoan eta bazkari bakarra egin eitekean (afaria, Gabon-gaueko afaria) eta oso arina izan behar eban. Eliztarrek goiz afaltzen eben familian eta gero Oilar-Meza tradizionalera joaten ziran. Horregaitik dogu arraina jateko ohitura gastronomikoa, Gabon-gauean. Oilar-Mezaren ondoren, Gabonak hastetzat emoten ziran, eta bertan okela jatea baimenduta egoan.

Kristau tradizioan kapoia prestatzeko modurik onena erre zana. Hala jasotzen eben Nestor Lujanek eta Juan Peruchok "Cocina española, gastronomía e historia (Bartzelona, 1972)" liburuan. Geure artean ohitura zan txingarretan burduntzian prestatzea, metalezko gurutze batean zabalik eta ainguratuta.

Ahokeran, oilasko-okelatik bereizten dogu bere urtsutasunean eta zapore indartsuan, testura finean eta usain gozoan. Kapoiak proteina-eduki handia dauko, balio biologiko handikoak, muskulu-sistemarako onak; burdina hemoa emoten dau, xurgatzen erraza, eta potasioan daukon balio handiagatik nabarmentzen da, ona nerbio-sistemaren funtzionamendurako. **UM**

RECETA



Kapoi erre

OSAGIAK

- Kapoi 1
- Patatak
- Berroak
- Gatza
- Txarri-koipea

Ondo garbitu eta armau ondoren, barrutik eta kanpotik gatzatza emoten jako; koilarakada bat gantz sartzen jako barruan, eta kazola sakonean txarri-koipeagaz erretzen hasten da, azpian makila-koilara batzuk jarriz, erre ez daiten, eta ondo estalita beste kazola batez, lurruna gorde daian. Lasaitasun handiz egin behar da, hazurra okelari itsatsita gera ez daiten, eta aldi-aldi bueltak emon. Hiru bat ordu behar dira, samurra bada. Labean arinago egiten da, baina sikuagoa geratzen da. Bere zukuagaz zerbitzatzen da, patata prijituez eta berroez inguratuta.

"El Amparo" jatetxearen errezeta (Bilbo, 1952)

E
EGUREN

OPTIKA
ENTZUMEN ZENTROA



GERNIKA-LUMO
Domingo Berraola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

MUNGIA
Aita Elorriaga, 20
946156636



AUZOKOA
TABERNA

Ostadar
zaporetzua

Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66



LAZTEZ ARRIERA
TURISMOA

Ezagutu Gauegiz Arteaga
pausoz pauso



OROLDIOA ETA LIKENA

KUTSADURAREN BIO ADIERAZLEAK

Oroldioak eta likenak zarakar biologiko edo bioazal begetal lez sailkatzen dira. Lur gainean dagoz, harri eta enborretan, leku ilun eta hezeetan, eta euren zeregin biologikoa imajina daikeguna baino askoz garrantzitsuagoa da. Euskadik oroldio ugari daukoz, eta horreetako batzuk babestuta dagoz euren biziraupena bermatzeko.

Landare txiki samarren bi talde dira, sarritan batera hazten dira eta nahas daitezke. Baina ez dira familia berekoak. Eboluzioan oso urrun dagozen organismoak dira, hau da, taxonomian, landareen sailkapena aztertzen dauen zientzia, oso urrun dagoz. Bat datoz biek onura ekologiko handiak ekartzean eta, gainera, inguruneko baldintza atmosferikoen salatariak izatean. Lurraren, harrien eta enborren gainean aurkitzen dogun geruza heze eta bigungarria, labainkorra eta berde kolorekoa, oroldioa da. Likenak zarakarrak edo xaflak bezala hazten dira zuhaitz-azaletan edo harrien gainean.

OROLDIOA, BABESTUTA EUSKADIN

Briofita izenez be ezagunak, baskularrak ez diran landareak dira, hau da, zurtoinik eta lorerik ez daukenak, eta algetatik abiatuta eboluzionatu ebela uste da, lurreko bizitzara egokitzeko. Batez be, eremu heze eta itzaltsuetan agertzen dira, eta fotosintesiaren bidez elikatzen dira; hortik dator euren kolore berdexka. Oroldioen ezaugarri nagusia ura atxikitze gaitasuna da; ura xurgatzeko gai diran esponja naturalak dira, 20 aldiz bere pisua. Giroa lehortu ahala, ura askatu egiten dabe, eta, horrela, ekosistemen erreserba hidrikoak erregulatzen laguntzen dabe. Ura xurgatzen daben moduan, mineralak be atxikitzen dabez eta, horrela, materia organikoa emoten deutsoe lurrari, modu naturalean ongarrirituz. Euri garaian esporofitoa agertzeaz goza daikegu (esporak sortzeaz arduratzen dana), oroldioaren gainean nabarmentzen diran harizpi luzeak. Oroldioa babesleku egokia da animalia txikien bariedade handi batentzat, badira bertan habiak egiten dabezen txoriak be. Ura eta atmosferako nutrienteak xurgatzeko daukozen ezaugarriengatik, airearen kali-

dadearen bio-adierazle bikaina da, airearen konposadu guztiak gordetzen dauz eta. Badira oroldioen ezaugarri hau garatu daben bioteknologiako proiektuak.

Euskadin, oroldioa geure landare-ondare naturalaren adierazpen aberatsa da. Bere lurralde hedadura ez da zabala, baina bai bere bariedade eta aberastasuna. Euskadin biofrito asko dagoz, 600 espezie baino gehiago gordetzen dauz, hau da, dagozen goroldio-espezieen %60. Halanda be, sastreakeak kentzeak, artzaintzak, zapaltzeak, ur-goraldiek edo baso-jarduera batzuek Euskadiko espezie bereizgarri batzuen biziraupena arriskuan jarri dabe. Egoera honen aurrean, Eusko Jauriaritzak Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dagozen Espezieen Euskadiko Zerrendan 7 oroldio mota barne hartzen dauz. Horregaitik, debekatuta dago oroldioa batzea eta saltzeko baimen berezia behar da. Alfombra berde begetal hau bere horretan mantentzeko, Gabonetan hobe da oroldio artifiziala erabiltzea.

LIKENAK, BIZIRAULE HANDIAK

la ekosistema guztiak kolonizatze gaitasun handia dauke. Sinbiosian dagozen bi organismoen alkattea da, alga bat eta onddo baten artekoa, hain zuzen be. Algek fotosintesiaren bidez elikagaia sortzen dabe eta onddoari zerbitzatzen deutsoe. Onddoak hezetasuna emoten dau, eta substratu hau alga bizirauteko eta babesteko ezinbestekoa da.

Likenak giro hezeetan garatzen dira, kolore eta forma askotakoak dagoz eta edozein substratu eta inguruetan aurki daikeguz, harkaitzetatik zuhaitzen adar lehorretara, baina ez dira zuhaitzen izerdiaz elikatzen, ez dabez adarrak lehortzen eta ez dira parasitoak. Eusteko leku bat besterik ez dabe behar. Likenak izugarri motel hazten dira, azkarrena 30 mm hazten da urteko; halanda be, sinbiosiak osoaldi luzeetan bizirauteko aukera emoten deutse. Groenlandiako mendebaldean aurkitutako espezie batek 4.500 urte inguru daukozela uste da. Hiltzen diranean, lurreko nutrienteak aberasten daben humusaren parte dira, landareak eta beste organismo batzuk hazi ahal izateko.

Inguruneko baldintza atmosferikoen salatariak izaten dira.

Likenen birtute handienetako bat da geure ingurunearen egoera hobeto ezagutzen laguntzen dabeela, bioadierazle lez funtzionatzen dabe. Muturreko klimak jasaten dabez, baina atmosferaren kutsadurakiko sentikorrek dira, bereziki sufredioxidoarekiko eta nitrogeno oxidorekiko. Sustrairik ez daukenez, atmosferako ura eta nutrienteak xurgatzen dabez, baina, aldi berean, airearen kutsadura be bai. Kutsatzaileak metatu egiten dira, eta jada ezin dabezenean jasan, hil egiten dira. Ezaugarri horregaitik, oso erabilgarriak dira leku batean non eta ze kutsatzaile mota dagozen adierazteko. **UM**

SAN NIKOLAS,

santu bihotz-zabala



Bariko San Nikolas eleiza, Elantxobe

Bariko San Nikolasekiko debozinoa berari egozten jakon izaera errukior, babesle eta eskuzabalari lotuta dago. Milaka dira bere izenpean dagozen eleizak, mundu osoan. Busturialdean horretako bat dogu Elantxoben. Aspalditik ospatzen dira herriko jaiak bere omenez.

Elantxobeko Bariko San Nikolas eleiza 1803an eraiki eban bere izena daraman Marinel eta Arrantzaleen Kofradiak, San Nikolas Kofradiak. Horrela deskribatzen dau Juan E. Delmas bilbotar kazetari eta idazle eza-gunak bere *"Guía-histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya en 1864"*: ... *"Sortu zan mendian zabaltzen dan lautada txiki-txiki bakarraren gainean, Bariko San Nikolasen izeneko eleiza bat altxatzen da"*.

NEGUKO FESTA

"Elantxoben kapitain, itsasgizon eta merkataritza-ontzietan lan egiiten eben marinela izan dira. Horregaitik da herriko zaindaria Bariko San Nikolas. San Pedro arrantzaleen patroia da eta antxina ospetsuak ziran San Pedro jaiak. Baina Elantxobeko patroia Bariko San Nikolas da, kofradiako, herriko eta eleizako patroia", kontatzen deusku Mertxe Lizasuk, Elantxobeko Eleizako eliztarra.

Elantxoben nostalgiaz gogoratzen dira herriko patroia dan San Nikolaseren omenezko jaiak debozino handiz ospatzen ziran urteak. *"Betidanik, bezperan erromeria*

egiten zan eleizaren aurrean. Udalbatza osoa etorten zan bere banderagaz eta kofradiako korporazinoa bereagaz. Eleizan, banderen estandarteak eusteko zuloak dagoz oraindik. San Nikolas eguna abenduaren 6a da. Mezan eleiza beteta egoan. Neguko festa bat da, baina polita, geure santutxoari ohorea eginez. Jende guztiak egiten ebezan berokiak eta soinekoak festarako eder jartzeko. Orain San Nikolas ospatzen da, baina ez da lehen bezala. Jendeak ez dauko bera ikustera etortzeko debozino hori. Aurton jende dezente egon dan arren", gogoratzen dau Mertxek.

Elantxobeko San Nikolas jaiak, kirola falta ez dan egitarau herriko baterantz ebo-luzionatu dau, *"Kaltzadan Gora Xtreme"* proba gogorragaz, galtzada aldapatsuan gora lasterketa eginez; musika, kontzertuekaz; eta Bariko San Nikolas Barikoa gurtuteko ospakizun erlijiosoak eleizan.

SORRERA

Tenpluaren existentzia lbarrangeluko elizateko arrantzaleak 1520 inguruan gaur egun Elantxobe dagoen lekura bizitzera joan izanaren ondorio da. Mezetara joateko debozinoak, batez be itsasora irteteko laguntza eskatzeko, Mareanteen kofradiaren debozinoz sortutako basiliza sortu eban, ondoren Bariko San Nikolas parroikia izan zana. *"Euskal Herriko Hiztegi Historiko-Geografikoak"* jasotzen dauenez, XVIII. mendearen amaieran Elantxoben San Nikolasi eskainitako basiliza honi buruzko erreferentzia historikoak dagoz. lbarrangeluri buruz egindako deskribapenean honako hau adierazten da: *"... lau ermita dagoz, Santa Maria, San Bizente martiri, Santo Tomas eta San Pedro eta San Nikolasi eskainiak: lehena Acordan dago, bigarrena Arzorán, eta beste bi Elantxoben, elizateko auzo nagusietako bat dana"*.

1756an lbarrangeluko parrokiako hiru apaizetako batek Elantxobeko ermitan meza emotea lortu zan jai, agintza eta domeka egunetan. XIX. mendearen hasieran, Kofradiak egungo eleiza eraikitzea erabaki eban, antza, ermitak okupatzen ebanez bestelako leku bat. 1803ko abenduaren 6an eleiza barria bedeinkatu eta Sakramentu Santua jarri zan.

Vatikanoak dino Nikolas Pataran (Turkia) jaio zala K.o-ko III.mendean. Umeen, bidaiarien eta nabigatzaileen patroia da. Oso gazterik umezurtz geratu zan, eta bere familia aberatsaren ondasun guztiak erabili ebazan behartsuei, gaixoei eta pobreei laguntzeko. Mendeetan zehar, bere eskuzabaltasunak bere mirari eta balentrien inguruko legendak sortu dauz, eta horrek Santurik ospetsuen artean egotea ekarri eban. Myran (Turkia) hil zan, baina bere erlikiak Barira (Italia) eraman ebezan musulmanen konkistaren ondoren eta bertan gurtu egiten dira. Horregaitik da ezaguna Bariko San Nikolas bezala.

MIRARITSUA ETA BABESLEA

Historikoki, itsasoko arriskuen babesari eta hondoratzeei buruzko mesedeak eskatu izan jakoz. Bere gaztezarroan, Nikolas Lur Santurako erromesaldia bizitzeko ontziratu zan. *"Geure santutxo mirarigilea zan, zetorren ontzian denboralea egon zalako eta mirariz baretu ebalako. Gaztea nintzanean, Campsak petrolio-ontzi bat izan eban, San Nicolas izeneko, eta sua hartu eban. Salbatu ziran guztiak, Elantxobeko San Nikolasi eskerrak emotera etorri ziran"*, gogoratzen dau Mertxek.

Eskuzabaltasuna beti santu honi lotu izan jakon birtutea da. Ehunka urtetan zehar, San Nikolas opari-eramaile magikoa izan da bere heriotza ospatzeko ospakizunetan, abenduaren 6an. Orokorrean, umeen ilusioagaz lotuta dago, eta, bereziki Herbehereetan, Gabonetan opariak banatzeko magia egozten deustoe, Papa Noel, Santa Claus edo zuzenean San Nikolas izenpean. *"Geuretzat, katolikoontzat, garrantzitsuena dan Jauna jaiotzen danean, Errege Magoek opariak ekartzen deustoez Jainkoari. Umeak etxeko errege-erreginak diranez, Erregeek opariak ekartzen deustoez orain"*, azadu dau Mertxe Lizasuk.

UM

Ba al zenekien?

- Sukarrietan, egungo San Andres parroikia, auzoari izena emoten eutsan San Nikolas izeneko ermita bat egoan lurretan eraiki zan. Gaur egungo San Andres "Samikole" edo "Sannikolai" izenez ezagutzen zan lehen. Izen hori erabiltzen eben herritarrek udalerrira osoari be erreferentzia egiteko.

Ekoetxea Meatzaldea



Ekoetxea Txingudi



Ekoetxea Azpeitia



Ekoetxea Urdaibai



ekoetxea sarea

Euskadiko ingurumen zentroen sarean naturaren altxorrez gozatu eta jasagarritasunaz gehiago ezagutzeko aukera duzu.

Zain dituzu hamaika esperientzia ahaztezin.

Murgildu Euskadiko naturan!

En la red de centros ambientales de Euskadi puedes disfrutar de los tesoros de la naturaleza y conocer más sobre la sostenibilidad.

Te esperan infinidad de experiencias inolvidables.

¡Descubre la naturaleza de Euskadi!

www.ekoetxea.eus



kulturklik

www.kulturklik.euskadi.eus

Agenda kultural osoa, *klik* batean

Toda la agenda cultural, en un *klik*

Tout l'agenda culturel juste à un *klik*

All the cultural agenda in a single *klik*



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



BILBAO
BIZKAIA
be basque

BILBAO ————— BIZKAIA
uneXpected



Aurkitu izenik laburrena
duen herria.